

Nola babesten dira, bereziki, gertakizun hauek?

Babesa eskuratzeko erraztasunak ematen dira:

- Besteren konturako langileak beti alta-egoeran daudela jotzen da.
- Ez da gutxieneko kotizazio-aldirik eskatzen prestazioetarako eskubidea izateko.

Babes indartua eskaintzen da:

- Entitate kudeatzaileak aldeaz aurretik ematen dio dagokion babesa langileari, baita alta-egoeran edo altarekin parekatutako egoeran ez badago ere.
- Aldi baterako ezintasuneko sorospena baja hartu ondorengo egunetik hasten da jasotzen, eta oinarri arautzailearen % 75ekoa da.
- Heriotza eta biziraupen kasuetan, dagokion prestazioaz gain, oroharreko zenbateko bat ematen da kalte-ordain gisa (alargunari: pentsioa kalkulatzeko erabiltzen den oinarri arautzailearen 6 hileko ordainketa; umezurtzei: hilabeteko ordainketa).
- Pentsioak langilearen benetako soldataren arabera kalkulatu dira.
- Laneko segurtasun- eta higiene-neurrien gabeziagatik, prestazioak % 30etik % 50era bitartean igoko dira, hutsegitearen larritasunaren arabera.
- Ezintasun iraunkor izatera iristen ez diren lesio itzulezinek, osotasun fisikoa mugatzen badute, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ematen dute, lesioaren larritasunaren arabera baremo bati jarraituz.



Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala
Zugandik hurbilago

901 16 65 65

www.seg-social.es

Catálogo general de publicaciones oficiales: <http://www.060.es>

NIPO 791-08-010-9

ekoizpen Grafikoko Zerbitzua/2008 (eusk)

LAN-ISTRIPUEN ETA LANEKO GAIXOTASUNEN gida

Kudeaketa
Gertakizunei buruzko erabakia
Erreklamazioak
Babesa



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE TRABAJO
E INMIGRACIÓN



SARRERA

Gizarte Segurantzaren sisteman, bi babes-mekanismo daude: bata laneko gertakizunetarako, hau da, lan-istripuen edo lanbide-gaixotasunen ondoriozko gertakizunetarako, eta, bestea, gertakizun arruntetarako, alegia, lanekoak ez diren istripuen edo gaixotasun arrunten ondoriozko gertakizunetarako. Laneko gertakizunen ondoriozko prestazioak eta prestazio arruntak desberdinak dira, ez bakarrik horiek jasotzeko eskubidea izateko bete behar diren baldintzak desberdinak direlako, baita lehenengoei babes handiagoa ematen dutelako.

Zer dira laneko gertakizunak?

Lan-istripua (LI): Besteren kontura egiten duen lana dela-eta edo lan horren ondorioz, langileak jasaten duen edozein gorputz-lesio.

Zehazki:

- Lantokian eta lanean dihardutenean langileek jasaten dituzten lesioak, kontrako frogarik ez badago.
- Lanera joatean edo itzultzean izandako istripuak.
- Enpresak, lan-kontratuaren ondorioz, langilea kanpora bidaltzen badu zeregin batera, tarte horretan izandako istripuak.

Laneko gaixotasuna (LG): besteren kontura egindako lanaren ondorioz hartutako gaixotasuna, baldin eta azaroaren 10eko 1299/2006 EDaren bitartez onartutako gaixotasun profesionalen koadroan agertzen bada eta koadro horretan gaixotasun bakoitzerako ezartzen diren elementu edo substantziek eragindakoa bada.

Lan egiteagatik harrapatutako gaixotasunak, LGen koadroan agertzen ez badira, lan-istripuztat hartuko dira.



KUDEAKETA

Nola egiten da lan-istripuen eta laneko gaixotasunen kudeaketa?

Laneko gertakizunen kudeaketa hauetako bati esleitzen zaio: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari (GSIN), lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutualitate bati edo kudeaketan laguntzeko baimendutako enpresari berari. Enpresaburuek beren langileak babesteko mutualitate bat aukeratzen dutenean, mutualitate hori arduratuko da laneko gertakizunen kudeaketaz eta babesaz, eta bere gain hartuko ditu diru- eta osasun-prestazioak.

Lan-istripuen kasuan, enpresari dagokio gertakizunaren agiria egitea, eta laneko gaixotasunen kasuan, entitate kudeatzaileari edo mutualitateari.

GERTAKIZUNEI BURUZKO ERABAKIA

Nork erabakitzen du laneko gertakizunengatiko prestazioak eman behar diren?

Aldi baterako ezintasunaren kasuan: GSINk, mutualitateak edo kudeaketan laguntzaile den enpresak, laneko gertakizunei erantzuteko ardura zeinek duen.

Ezintasun iraunkorraren kasuan: gertakizunari erantzuteko ardura GSINk duenean, berak hartuko du erabakia; ardura hori mutualitatearena denean, berriz, mutualitateak proposamena egingo du, eta azken erabakia GSINk hartuko du.

Heriotza- eta biziraupen-kasuetan: GSINk edo mutualitateak, laneko gertakizunei erantzuteko ardura zeinek duen.

ERREKLAMAZIOAK

Zer egin aitortutako gertakizunarekin ados ez bazaude?

Kudeaketaren arduraduna dena dela ere, aitortu zaizun gertakizunarekin ados ez bazaude (adibidez, harrapatutako gaixotasuna lanekoa dela uste baduzu, eta ez arrunta), hauxe egin behar duzu:

- Aldi baterako ezintasunaren eta ezintasun iraunkorraren kasuan, diru-prestazioa onartzeko abiarazitako administrazio-espedita oraindik tramitatzen badago (ebatzi gabe badago), gertakizuna zehazteko prozedura hasteko eska diezaiokezu, idatziz, GSINko Zuzendaritzari edozein unetan. Prozedura horretan, langilea, enpresa eta mutualitatea izango dira eskubidedun. Horrelakoetan, Ezintasunak Baloratzeko Taldeak edo, bestela, Balorazio Medikoa egiteko Kataluniako Institutuak, irizpenproposamen bat emango du gertakizuna arrunta edo lanekoa den argitzeko.
- Prestazioa berriki onartu bada eta aitortutako laneko gertakizunarekin edo gertakizun arruntarekin ados ez bazaude, aurre-erreklamazioa aurkez dezakezu GSIN-n gertakizun egokia aitortu dadin eskatzeko, aurreko kasuko ondorio berberekin. Hori egitea ezinbesteko baldintza da lan-arloko jurisdikzioan demanda aurkeztu ahal izateko.
- Lan-istripuen ondoriozko heriotza- eta biziraupen-prestazioen kasuan, interesatuak mutualitateari egin behar dio erreklamazioa, edo zuzenean jo dezake lan-arloko jurisdikziora.